

Aurkezpena: *Euskalingua* – 3

Irakurle,

Euskalinguaren hirugarren zenbakia daukazu hau. Oraingo honetan ohiko ikerketa arloei dagozkien zazpi artikulu topatuko dituzu.

Batuketaren arloan Aurrekoetxeak “Arratiako hitanoaren arautzea” izeneko artikuluan hizketa informala edo lagunartekoaren estandarizazioari ekin dio, Arratiako azpi-lurralde berbetaren aditz alokutiboen paradigmak eskainiz. Ez da hau dialektologia lan deskriptiboa; berbetaren normatibizazioari begira, aldaki ezberdinetatik bakarra proposatzen da azpi-lurralde berbeta egiten den eremu informalean hitanoa ikasi behar duten Arratiarrek erabil dezaten.

Beste korpus aldetiko behar bi aurkituko dituzu zenbaki honetan, biak dialektologia arlokoak: Barrutiak Kantabriako Castro Urdiales eta Bizkaiko hainbat herritan galdetegi eta elkarrizketaren bidez batutako erdara eta euskarazko itsas-txorien izenak dakartza. Bestetik, Mtz. de la Cuadraren Nabarnizko hiztegiaren B eta D-z hasitako berbak ditugu, hiztegi mardularen bigarren atala, hain zuzen. Lexikoa batu ez ezik fraseologia eta adibide erabilerak ere eskaintzen ditu bertan.

Gamindek azterketa esperimentala burutu du doinu-azentudun aldaera (Gatikakoa) Bizkaiko edozein doinu-azentudun aldaeradunek,

Bizkaiko gainerako aldaeradunek, giputzeak eta euskaldun berriek zelan perzibitzen duten argitzeko. Esperimentuan parte hartu duten gazte batzuk tonu igoera azentutzat jo dute, oker, kasu askotan. Ez da harrizkeoa, pertzepzio zuzenena doinu-azentudun barietatea erabiltzen dutenek eta huts gehien euskaldun berriek egitea.

Aplikazioaren eremuan, bi lanek euskal eskola hartzen dute azter-eremu. Euskal Herriko eskoletan Ingurunearen testuliburuetan euskara zerekin lotzen den aztertu du Bilbaok ondoko ondoriora helduz: Euskal Herria eta berari dagozkion ezaugarriak jorrazterakoan ikuspegi soziokulturala barik politikoa darabilte oraingo testuliburuak. “Ikonoграфия euskarri teknologiko berrietan” izeneko artikuluan, teknologia berriek gure gizartean duten eragina eta sortzen ari den ikasle berria aintzakotzat harturik, eskolaren curriculumean ikonoграфия lantzearen beharraz jardun du P. de Urreza irakasleak.

Azkenik, Sanchez eta bestek ahots ezagutze automatikoaren ildotik emoziodun ahots ezagutzearen inguruan burutu diren hainbat ikerketaren berri eman digute, baita arlo honi buruzko esperimentu bat proposatu ere.

Lan hauek denek ikerketa mailan ekarpen garrantzitsua egiten dutena eta, disziplinarrekotasunari begira, arlo ezberdinetako azterlarietara interesgarri egingo zaizkienean seguru gaude.

Esti Amorrortu, editorea